# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia | Iruña, 2022ko ekainaren 21a | 82. ZK.

**A U R K I B I D E A**

B SAILA:
**Foru lege proposamenak:**
—Foru Lege proposamena, Udaletako 0-3 ikastetxeetako langileen lan baldintzak hobetzekoa. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).

D SAILA:
**Hitzarmenak:**
—Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa. (5. or.).

E SAILA:
**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**
—Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da preserbatiboa eta barrerako beste metodo batzuk erabiltzearen gaineko sentsibilizazio kanpainak egin ditzan, sexu-transmisiozko gaixotasunak murrizte aldera. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (7. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bat egin dezan Aragoirekin batera proposatutako Pirinioetako hautagaitzarekin, Neguko Olinpiar Jokoetarako. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (8. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Saharako gatazkarako konponbide bat sustatu eta lagundu dezan, NBEaren ebazpenetan oinarritutako deskolonizazio prozesuaren esparruan, Saharako herriaren autodeterminaziorako eskubidea barne. Mozioa erretiratzea (9. or.).

F SAILA:
**Galderak:**
—Galdera, Valle de Odieta SCLri eta Hibridación Termosolar Navarra, SLri Caparrosoko abeltegitzarrerako emandako ingurumen-baimenaren baldintzak ofizioz berrikusteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Galdera, Emanzipa programaren onuradunen adin-tartea zabaltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna. Galdera, Etxebizitza Partekatuko Belaunaldiarteko Programa abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
—Galdera, erosteko aukera ematen duen alokairuaren eredua bultzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
—Galdera, azken hogeita lau hilabeteetatik gutxienez seitan Nafarroatik kanpo bizi izan diren gazteen itzulerarako plana abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
—Galdera, etendako kirurgiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
—Galdera, Foremeko eta Iruñeko apaiztegiko COVID txertatzerako langileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
—Galdera, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.4 artikuluaren aldaketari, abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarrian jasotzen den horri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
—Galdera, Metautenen eta Zuñigan eraikitako bizikletendako bideen erabilerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
—Galdera, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena Nafarroan aplikatzeari buruzkoa. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea (24. or.).

**B saila:**
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

# Foru Lege proposamena, Udaletako 0-3 ikastetxeetako langileen lan baldintzak hobetzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikuluak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Navarra Suma talde parlamentarioak udaletako 0-3 ikastetxeetako langileen lan baldintzak hobetzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du (10-22/PRO-00014).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin udaletako 0-3 ikastetxeetako langileen lan baldintzak hobetzeko Foru Lege proposamena.

**2.** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2022ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Foru lege proposamena, udaletako 0-3 ikastetxeetako langileen lan baldintzak hobetzekoa

ZIOEN AZALPENA

28/2007 Foru Dekretuaren bidez sendotu eta arautu zen Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa, orduan onetsi berria zen Hezkuntzaren Lege Organikoaren (LOE) 14.7 artikulua garatzeko xedez.

Araudi horrek ahalbidetu zuen zentroen eraikuntzari eta ekipamenduari buruzko ongizate eta segurtasun baldintzetara egokitutako ikastetxe publiko eta pribatuen sare zabal bat sendotzea, bai eta garapen-prozesu hoberena ahalbidetu duen curriculum-egitura eta prestakuntza duten profesionalen eskakizuna ere. Hala, lortu da Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeek kalitatezko hezkuntza-inguruneak izatea, desberdintasun pertsonal, kultural eta sozialen konpentsatzaileak.

Haur Hezkuntzako zentro publikoen sareak tipologia desberdinetako ikastetxeak hartu zituen: Nafarroako Gobernuaren haur eskolak, udalen haur eskolak, bai eta bi urteko umeentzako ikasgelak ere Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, eskaintza anitzaren eta antolaketa malguaren bidez erantzuna eman nahian familiek kontziliazioaren eremuan dituzten askotariko beharrei.

Nafarroako Gobernuak udal titulartasuneko haur eskoletan parte hartzen du urteroko finantzaketa-hitzarmenen bidez. Hitzarmen horiek ahalbidetzen dute langileria gastuaren zati bat eta zenbait funtzionamendu-gastu finantzatzea.

Urte hauetan, Nafarroako udalek 0-3 zikloari arreta ematen dioten langileen kudeaketari buruzko erabakiak hartu dituzte (zuzendariak, hezitzaileak eta laguntzaileak), eta hori dela eta, askotariko egoerak sortu dira. Zenbait udalek langile funtzionarioekin artatzen dituzte zentroak,

beste batzuek kanpoko langileei adjudikatutako kontratuen bidez, betiere zikloko ikasleak artatzeko beharrezko baldintzak betetzen direla.

Egoera horren ondorioz, desberdintasunak sortu dira lan baldintzetan eta, noski, langileek jasotzen duten soldatan; izan ere, askotan alde handia dago eskola batzuetatik besteetara, eta horrek konparaziozko bidegabekeria agerikoa sortzen du, ardura eta eginkizunak berberak baitira, hezkuntza-lana gauzatzen duten ardura publikoko zentroa edozein dela ere.

Hain zuzen, horixe da foru lege honen funtsezko helburua: Foru Komunitateko udalen haur eskoletako eta Nafarroako Gobernuaren zentroetako langileen soldatak pareka daitezen ahalbidetzea. Horretarako, haur eskolen jabetza duten udalekiko urteko hitzarmenetan jasotzen den udal titulartasuneko zentroen kudeaketarako finantzaketa-moduluan eraginen da.

**Artikulu bakarra.** 0-3 zentroetako langileen lan baldintzak hobetzea.

Hezkuntza Departamentuak Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketarako finantzaketa-moduluak aldatuko ditu, halako moduz non beharrezkoa den zenbatekoa jasoko duten kasuak kasu udal titulartasuneko 0-3 ikastetxeetako langileen soldata eta Nafarroako Gobernuaren haur eskoletako langileena parekatzeko.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Kudeaketa- eta finantzaketa-ereduen azterketa

Bere eskumenen esparruan eta foru lege hau indarrean sartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak, toki entitateekin batera, zikloa kudeatu eta finantzatzeko balizko beste eredu batzuk aztertuko ditu, ratioen jaitsieraren bidez ikasleak hobeto artatzea ahalbidetuko dutenak.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arau-indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

1. Foru lege hau 2023ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, baina 2022-2023 ikasturte osoan aplikatzekoa izanen da.

2. 2022-2023 ikasturtearen hasieratik soldatak parekatzearen kostua estaltzeko, 2023ko urtarrilean ordainketa berezia eginen zaie udalei.

**D saila:**
**HITZARMENAK**

# Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 45.4 artikuluan zehaztutakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak, 2022ko ekainaren 15eko erabakiaren bidez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. eta 172. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Agintzea Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa (10-22/AUT-00002).

**2.** Xedatzea Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketaren eztabaida eta bozketa eginen dela Legebiltzarreko Erregelamenduaren 172. artikuluaren 2. arauan ezarritakoari jarraikiz.

Iruñean, 2022ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## HITZARMEN EKONOMIKOAREN NEGOZIAZIO BATZORDEA 1/2022 AKTA

Madrilen/Iruñean, 2022ko ekainaren 10ean

Estatuko Administrazioa ordezkatuz:

Jesús Gascón Catalán jauna, Ogasuneko estatu-idazkaria. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioa.

Inés Olóndriz de Moragas andrea, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketaren idazkari nagusia. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioa.

Soledad Fernández Doctor andrea, Zerga Administrazioko Estatu Agentziako zuzendari nagusia. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioa.

Maria José Garde Garde andrea, Tributuen zuzendari nagusia. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioa.

Javier Sánchez Fuentefría jauna, Aurrekontuen zuzendari nagusia. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioa.

Nafarroako Foru Komunitatea ordezkatuz:

Elma Saiz Delgado andrea, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria.

José Javier Esparza Abaurrea jauna, Navarra Suma parlamentu-taldea ordezkatuz.

Ramón Alzórriz Goñi jauna, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldea ordezkatuz.

Uxue Barkos Berruezo andrea, Geroa Bai parlamentu-taldea ordezkatuz.

Adolfo Araiz Flamarique jauna, EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldea ordezkatuz.

Mikel Buil García jauna, Podemos Ahal Dugu Nafarroa parlamentu-taldea ordezkatuz.

José Miguel Nuin Moreno jauna, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldea ordezkatuz.

Oscar Martínez de Bujanda Esténoz jauna, Nafarroako Foru Ogasuneko zuzendari kudeatzailea.

2022ko ekainaren 10ean, 12:00etan, urrutiko bilera egin zuten, bideokonferentzia bidez, lehenago aipatutako pertsonek, Estatuko Administrazioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkari, gai zerrendan sartutako gaiei buruz eztabaidatzeko asmoz.

Estatuko Administrazio Orokorraren aldetik, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketaren idazkari nagusia bertaratu da eta, gainera, Aurrekontu Egonkortasuneko eta Lurraldeko Finantza Kudeaketako zuzendari nagusiaren ordezkari gisa aritu da; gauzak horrela, Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkaritzaren idazkari jardunen du.

Estatuko Administrazio Orokorraren aldetik, gainera, Aurrekontuen zuzendari nagusia ere bertaratu da, Aurrekontu eta Gastuetarako Estatu Idazkaritzaren ordezkari gisa.

Gaiak eztabaidatu ondoren, aho batez hartu ziren akordio hauek:

**Akordio bakarra**

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa.

Bat.- Onestea Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa, akta honen I. eranskinean dagoena, modu honetan:

– 40. quater artikulua gehitzea.

Bi.- Erantsitako testua instituzio eskudunetara igortzea, ondorengo tramitazioa egin dezaten.

## I. ERANSKINA
## Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa

**7. atala.-** Hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zerga

**40. quater artikulua.** Zerga ordainaraztea eta aplikatu beharreko araudia

1. Hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zerga ordainaraztea Nafarroako Foru Komunitateari dagokio, baldin eta zergaren xede diren hondakinak entregatuko diren zabortegia edo errausketarako edo baterako errausketarako instalazioa lurralde horretan badago.

2. Zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu.

Nolanahi ere, Foru Komunitateak zerga honen karga-tasak handitzen ahal ditu, unean-unean lurralde erkidean indarra duten muga eta baldintzekin.

Horrekin batera, Foru Komunitateak autolikidazioa eta ordainketak egiteko ereduak onesten ahal ditu, gutxienez ere lurralde erkideko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatzen ahal ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetatik asko aldendu gabe.

**E saila:**
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da preserbatiboa eta barrerako beste metodo batzuk erabiltzearen gaineko sentsibilizazio kanpainak egin ditzan, sexu-transmisiozko gaixotasunak murrizte aldera.

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita preserbatiboa eta barrerako beste metodo batzuk erabiltzearen gaineko sentsibilizazio kanpainak egin ditzan, sexu-transmisiozko gaixotasunak murrizte aldera (10-22/MOC-00059).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da sexu-transmisiozko infekzioen eragina murriztu dezan.

Zioen azalpena

Sexu-transmisiozko infekzioak osasun publikoaren arazo bihurtzen ari dira, azken urteotan izan duten gorakadagatik. Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak emandako datuen arabera, 2021ean hiru gaixotasun ohikoenen —gonorrea, sifilisa eta klamidia— ia mila kasu jakinarazi ziren, baina lau urte aurretik, 2017an, erdia baino gutxiago ziren (410).

2022ko lehen hiruhilekoan hiru infekzio horien kasuen % 20 gehiago (285) jakinarazi dira 2021eko aldi berean baino (237). 2020an, pandemiaren lehen urtearekin eta mugikortasuna eta harreman sozialak mugatzen zituzten neurriekin batera, intzidentzia murriztu egin zen. Baina 2021ean transmisioa berpiztu zen eta pandemiaren aurreko kopuruak gainditu ziren, eta 2022an ere igotzen ari dira.

Sexu-transmisiozko gaixotasun ohikoenen —gonorrea, sifilisa eta klamidia— kasuen % 56 gizonezkoengan atzeman ziren eta % 44 (418) emakumezkoengan. Adinaren aldetik, infekzio horien kasuak batez ere 35 urtetik beheitikoei dagozkie (% 72).

Chlamydia, gonokoko, sifilis, GIB eta linfogranuloma benereoaren infekzioak, ohikoenak baitira, asintomatikoak dira, erraz kutsatzen dira, antibiotikoen aurkako erresistentzia izaten dute eta, epe luzean, haien ondorioz kronifikazioa, antzutasuna, abortoak, sekuelak eta ama-haurra transmisioa gertatzen dira.

Hainbat faktore egon daitezke arazo horren berpiztean: sexu-osasunaren prestakuntza akastuna, preserbatiboa eta barrerako beste metodo batzuk bazter uztea, bikote kopuruaren igoera edo sexu-harremanen hasiera goiztiarragoa...

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du:

1. Preserbatiboa eta barrerako beste metodo batzuk erabiltzearen gaineko sentsibilizazio kanpainak egin ditzan, Nafarroako Gobernuko Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin batera, GIBaren eta sexu-transmisiozko beste infekzioen eragina murrizte aldera.

2. GIBaren eta sexu-transmisiozko beste infekzioen diagnostiko goiztiarra sustatu dezan Oinarrizko Osasun Laguntzan.

3. Ukitutako pertsonendako arreta integrala eta haien bizi-kalitatea hobetu ditzan.

4. Erantzun sozial bat bultza dezan, eraikigarria eta inklusiboa, estigmaren zein diskriminazioaren prebentziorako.

5. Behaketa eta ikerketa sustatu ditzan, GIBaren eta sexu-transmisiozko beste infekzioen prebentzio eta kontrolerako.

6.- Ikastetxeetan hezkuntza afektibo-sexualaren edukien tratamendua sustatu eta areagotu dezan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 16an

Foru parlamentariak: Patricia Fanlo, Ana Ansa, Domingo González, Mikel Buil eta Marisa de Simón

## Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bat egin dezan Aragoirekin batera proposatutako Pirinioetako hautagaitzarekin, Neguko Olinpiar Jokoetarako.

*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bat egin dezan Aragoirekin batera proposatutako Pirinioetako hautagaitzarekin, Neguko Olinpiar Jokoetarako (10-22/MOC-00060).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Kultura eta Kirol Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio urgente hau aurkezten du, Nafarroako Gobernua premiatzen duena bat egin dezan Aragoirekin batera proposatutako Pirinioetako hautagaitzarekin, Neguko Olinpiar Jokoetarako, Kultura eta Kiroleko Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Kataluniako Gobernuak Espainiako Batzorde Olinpikoari iragarri dio hautagaitza bat garatuko duela berak bakarrik, 2030eko Neguko Olinpiar Jokoak Pirinioetan egite aldera, agerian utziz, berriz ere, nazionalismoa urrundu egiten dela espainiarren interes komunari onura ekar diezaiokeen edozein akordio-eremutik.

Era horretan, Kataluniako Gobernuak uko egin dio Aragoiko Gobernuarekin batera hautagaitza bat aurkezteari, arrakastarako formula izanen litzatekeena, Pirinioetako ekialdeko eta erdialdeko lurraldeak dinamizatzeko nazioarteko kirolaren deialdi garrantzitsu hori etorrita.

Independentismo katalanaren itxikeria, sektarismoa eta proiektuak batzeko ezgaitasuna ikusita, Nafarroa ezin da besoak gurutzatuta geratu, Nafarroako Pirinioak balioan jartzeko, neguko kirolaren nazioarteko erreferentziako gune gisa, eta indarrak batzeko Aragoi bezalako erkidego lagun batekin. Nafarroako Foru Komunitatean aberastasun natural handia dugu, hala nola Erronkari eta Zaraitzu ibarrak, Larra-Belagoa eta Abodi ipar eskiko estazioekin, biak dozenaka kilometro-

ko pistak dituztenak, eta Aralar eta Urbasa bezalako mendiak, malda leunagoekin.

Hori guztia ingurune ezin hobea litzateke, baldintzen eta bermeengatik, nazioarteko kirolaren bilgunea izateko Aragoiko Autonomia Erkidegoarekin batera Neguko Olinpiar Jokoetarako deialdia eginez, aldi berean baliatuz gure auzoek jadanik dituzten ingurune eta azpiegitura oparoak, garatuta duten proposamenaren barruan.

Neguko Olinpiar Jokoek itzulkin ekonomiko garrantzitsua ekarriko lukete Nafarroako eta Aragoiko Pirinioetako eskualderako; aukera bakarra lirateke gure ondare naturalaren aberastasuna ikusarazteko, nazioarteko kirolerako luxuzko agertoki batean, eta aukera errepikaezina edukiko genuke gure erkidegoen eta bi erregioetako herritarren arteko loturak estutzeko.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Aragoiko Autonomia Erkidegoaren olinpiar hautagaitza bat babestu dezan, Espainiaren proiektu handi baten modura, Pirinio osoa hartuko duena, eta behar diren harremanak izan ditzan Aragoiko Gobernuarekin, bertan parte hartze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Pirinioetako eskualdearen garapena bultza dezan nazioko zein nazioarteko kirolerako erreferentziako zentro gisa.

Iruñean, 2022ko ekainaren 16an.

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

---

## Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Saharako gatazkarako konponbide bat sustatu eta lagundu dezan, NBEaren ebazpenetan oinarritutako deskolonizazio prozesuaren esparruan, Saharako herriaren autodeterminaziorako eskubidea barne.

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Adieraztea jakinaren gainean dagoela EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen zen Saharako gatazkarako konponbide bat sustatu eta lagundu zezan, NBEaren ebazpenetan oinarritutako deskolonizazio prozesuaren esparruan, Saharako herriaren autodeterminaziorako eskubidea barne, eta 2022ko apirilaren 1eko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/MOC-00035).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, Valle de Odieta SCLri eta Hibridación Termosolar Navarra, SLri Caparrosoko abeltegitzarrerako emandako ingurumen-baimenaren baldintzak ofizioz berrikusteari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Valle de Odieta SCLri eta Hibridación Termosolar Navarra, SLri Caparrosoko abeltegitzarrerako emandako ingurumen-baimenaren baldintzak ofizioz berrikusteari buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Caparrosoko makroetxalderako Valle de Odieta SCLri eta Hibridación Termosolar Navarra SLri emandako ingurumen baimen integratuaren baldintzak ofizioz berrikusteari buruz (10-22-PES-00135). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1. Lehen galdera: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak aurreikusi al du xedapen administratiboren bat edo indarrean daudenetakoren bat aldatzea Valle de Odieta, SCL eta Hibridación Termosolar Navarra, SL behartze aldera erabil dezatela GPS sistema autogidatu bat digestato likidoaren banaketarako ekipoan, honako hauek izanen dituena: trazabilitate geografikoa, geoerreferentziatua eta datuen PC bidezko bisualizazioa egindako lanetan?

– Erantzuna: Aipatu baldintzak jada jasorik daude Ingurumeneko zuzendari nagusiaren abenduaren 27ko 1383E/2021 Ebazpenaren II. eranskinean, Ebazpen horretan, epai bat betez, ingurumen baimen integratua eta lurzoru urbanizaezineko baimena eman ziren eta ingurumen eraginaren adierazpena egin zen.

2. Bigarren galdera: Edo, bestela, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak uste al du digestato likidoaren banaketarako ekipoan GPS sistema autogidatu hori erabiltzeko neurria ez dela jadanik beharrezkoa eta ez dela eskura dagoen teknika hobe bat banaketa horren eta simaurrak kudeatzeko planaren kontrolerako?

– Erantzuna: Lehenengo galderari emandako erantzun bera.

3. Hirugarren galdera: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak aurreikusi al du xedapen administratiboren bat edo indarrean daudenetakoren bat aldatzea Valle de Odieta, SCL eta Hibridación Termosolar Navarra, SL behartze aldera ezar dezatela emari-neurgailu bat digestato likidoa banatzeko ekipoan, neurtze aldera laborantzako lurzatietan aplikatzen den digestatoaren frakzio likidoaren dosia?

– Erantzuna: Baldintza horiek ere jasorik daude Ingurumeneko zuzendari nagusiaren abenduaren 27ko 1383E/2021 Ebazpenean.

4. Laugarren galdera: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak aurreikusi al du xedapen administratiboren bat edo indarrean daudenetakoren bat aldatzea Valle de Odieta, SCL eta Hibridación Termosolar Navarra, SL behartze aldera aplikatutako simaur eta digestatoen erregistro bat eduki dezatela, non agertuko diren honako hauek: simaur edo digestato mota, aplikazio data, udalerria, poligonoa, lurzatia, labore mota, azalera erabilgarria, azalera aplikatua, aplikatutako simaur dosia, aplikatutako nitrogeno dosia eta aplikatutako fosforo dosia?

– Erantzuna: Baldintza horiek ere jasorik daude Ingurumeneko zuzendari nagusiaren abenduaren 27ko 1383E/2021 Ebazpenean.

5. Bosgarren galdera: Egun Valle de Odieta, SCL-k eta Hibridación Termosolar Navarra, SL-k aplikatutako simaur eta digestatoen erregistroren bat erabiltzen al dute, no aipatutako datuak ezagutzen ahal diren?

– Erantzuna: Bai, informazio horretatik abiatuta osatzen dira simaurraren kudeaketaren erregistro liburuak, eta urtero aurkezten dira, hurrengo urteko lehen hiruhilekoan. Gainera, osagarri gisa, simaur eta digestatoen aplikazioaren erregistroak astero bidaltzen dira departamentu honetara, berrikusteko; eta hamabostean behin departamentuko teknikariak

instalaziora joaten dira erregistroak in situ gainbegiratzera.

6. Seigarren galdera. Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpenaren bidez emandako ingurumen baimen integratua ofizioz berrikusteko prozedura amaitutzat deklaratu eta artxibatu denez, ebazpen hori zuzenbidez deuseza zela deklaratu baitzen, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak oraindik uste al du berrikusi behar direla Valle de Odieta, SCL-k eta Hibridación Termosolar Navarra, SL-k Caparroson dituzten abeltzaintzako instalazioen eta biometanizazio plantaren funtzionamendurako baldintzak?

– Erantzuna: Lehenik argitu behar da ezen, 2021eko azaroaren 22ko 163/2021 Autoaren bidez, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak baietsi egin zuela epaia betearazteko fasean betearazleak aurkeztutako arazo intzidentala. Hala, adierazi zuen zuzenbidez erabat deuseza zela Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpena, eta demandatutako administrazioari eskatu zion bete zezala epaia, bertan adierazten zen bezala, autoaren bigarren arrazoibide juridikoan azaltzen zen moduan.

Horregatik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.2 artikulua aplikatuta –zeinak ezartzen baitu alderdiek epaiak bete behar dituztela haietan adierazten diren moduan eta epeetan–, epaia betez, ingurumen baimen integratua eta lurzoru urbanizaezineko baimena eman ziren eta ingurumen eraginaren adierazpena egin zen, Ingurumeneko zuzendari nagusiaren abenduaren 27ko 1383E/2021 Ebazpenaren bitartez.

Egindako galderari dagokionez, gaur egun hiru administrazio-prozedura izapidetzen ari dira instalazio horri dagokionez, eta horietan funtzionamendu baldintzen berrikuspen teknikoa egiten ari da:

a. 0001-0040-2019-000007 espedientea, behi-aziendaren ustiategian aldaketa nabarmena egiteko prozedura bati dagokiona. Aldaketaren helburua da simaur, minda eta hondakin-uren kudeaketarako sistema hobetzea.

b. 0001-0040-2021-000039 espedientea, biometanizazio-plantaren aldaketa nabarmena egiteko prozedura bati dagokiona. Aldaketaren helburua da sortutako digestato likidoaren tratamendua egitea, nekazaritzako ureztaketarako berrerabiltzen ahalko den ur efluentea lortzeko.

c. 0001-0052-2022-000006 espedientea, baimenaren baldintzak berrikusteko prozedura bati dagokiona. Helburua da biometanizazio-planta egokitzea Hondakinen tratamenduaren sektoreko teknika erabilgarri onenei buruzko 2018/1147 (EB) Betearazpen Erabakia betetzeko.

Ia ziur, aipatu prozedurak ebatzitakoan, abere ustiategiaren eta biometanizazio-plantaren funtzionamendu baldintzak erabat berrikusita egonen dira, eta ez da beharrezkoa izanen ingurumen baimen integratua ofizioz berrikusteko beste prozedura bat abiaraztea.

Nolanahi ere, egokitzat jotzen da espediente horiek amaitu arte itxarotea gaiari buruzko erabakia hartu aurretik.

7. Zazpigarren galdera. Zer neurri hartuko du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak berrikuste aldera instalazioaren funtzionamendurako baldintzak, behi-aziendaren ustiategiko hondakin-uren eta simaurren kudeaketa, digestoreen funtzionamendu-araubidea, biometanizazio-plantan ekoitzitako biogasaren bidez elektrizitatea ekoizteko instalazioa eta simaurra eta digestatoa ekoizteko eta kudeatzeko plana direla-eta, horiek ofizioz berrikusi nahi baitziren Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 20ko 108E/2021 Ebazpen bidez?

– Erantzuna: Berrikusi eginen dira instalazioaren funtzionamendu baldintzak, bai abere ustiategiarenak bai biometanizazio-plantarenak, eta titularrak baldintza horiek betetzeko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, aurreko galderaren erantzunean adierazitako hiru administrazio-prozeduren azterketa teknikoa bukatzen denean.

Prozedura horiek ebatzi ondoren beharrezkotzat jotzen bada neurri gehigarriren bat hartzea,

ingurumen baimen integratua ofizioz berrikusteko prozedura izapidetuko da.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 19an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

---

## Galdera, Emanzipa programaren onuradunen adin-tartea zabaltzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Emanzipa programaren onuradunen adin-tartea zabaltzeari buruz Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko apirilaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 10-22/PES-00137 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzutekoa. Hori dela eta, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

1. Bai, aurreikusita dago adin-tartea handitzea etxebizitzarako eskubide subjektiboaren EmanZipa modalitatean onuradun izateko.

2. Noizko aurreikusten den handitze hori aplikatzea? Jakina, lehendabizi neurriaren kostu ekonomikoa baloratu behar da, eta bigarrenik, behar adina langile eta baliabide material ba ote dagoen aztertu, ziurrenik espedienteak ugaritu eginen baitira. Inguruabar horiek kontuan harturik, gobernu honen hasierako asmoa da adin muga pixkanaka igotzea hurrengo ekitaldietan. Horrela, 2-4 urte barru 35 urtera bitartekoak (35 urtekoak barne) sartzen ahalko dira EmanZipa programan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 20an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

## Galdera, Etxebizitza Partekatuko Belaunaldiarteko Programa abian jartzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Etxebizitza Partekatuko Belaunaldiarteko Programa abian jartzeari buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak informazio-eskaera egin du (PES-00138), non honako informazio hau eskatzen baitzaio Nafarroako Gobernuari:

2019-2023 legegintzaldirako programa akordioak, “Gazteria” izeneko atalean, 94. puntuan, honako hau dakar: “Etxebizitza partekatuko belaunaldiarteko programa bat sustatzea, jabe nagusiekin eta baliabide ekonomiko gutxiko unibertsitateko edo goi mailako lanbide heziketako ikasleei zuzendua, bai eta belaunaldiarteko bizikidetzaren esperientzia bat ere”.

Noizko aurreikusten duzu programa hori abiaraztea?

Programa-akordioa bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako dokumentuaren 93. puntuan helburu hori jaso da, baina hura garatzeko zailtasunak izan dira, batez ere COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

Dagoeneko Nafarroako Unibertsitate Publikoarekiko harremanak berrabiarazi dira belaunaldiarteko etxebizitza programa baten ezarpena ituntzeko, zeinak, besteak beste, gazteak emantzipatzeko aukerak gehitu eta belaunaldien arteko harremanak sustatuko baititu.

Horretarako, hurrengo urtean zehar proiektu horren oinarriak bultzatu ahal izatea espero da, aurreko legegintzaldian jasotako esperientziak sinergiak sortu baititu Eskubide Sozialetako Departamentuak sustaturiko Belaunaldiarteko Bizitokiko Bitartekotza Zerbitzua izeneko programarekin, bai eta Gazteria eta Etxebizitza departamentuek eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Unibertsitate Proiekzioko, Kulturako eta Dibulgazioko Errektoreordetzak egindako elkarlanarekin ere.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 23an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

# Galdera, erosteko aukera ematen duen alokairuaren eredua bultzatzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin erosteko aukera ematen duen alokairuaren eredua bultzatzeari buruz Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko apirilaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak informazio-eskaera egin du (PES-00139), non honako informazio hau eskatzen baitzaio Nafarroako Gobernuari:

2019-2023 legegintzaldirako programa akordioak, “Gazteria” izeneko atalean, 94. puntuan, honako hau dakar: “Erosteko aukera ematen duen alokairuaren eredua bultzatzea, independizatzeari eta bizi aldi berri bat hasteari begira”.

1.- Noizko aurreikusten du aipatu eredua bultzatzea, kontuan hartuz Gobernuak orain arte abiarazitako neurriak mugatu direla soil-soilik etxebizitzaren alokairura?

Lehendabizi, uste dugu ez zarela ari Bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako Programa Akordioaren 94. puntuaz (Gazteek parte hartzeko berariazko programak sortuko dira), 93. puntuaz baizik:

93. Alokairu-eredua bultzatzea, erosteko aukera emanik, emantzipatzeko eta bizi-aro berria hasteko garaian. Etxebizitza partekatzeko belaunaldiarteko programa bat sustatzea, jabe nagusiekin eta baliabide ekonomiko gutxiko unibertsitateko edo goi mailako lanbide heziketako ikasleei zuzendua, bai eta belaunaldiarteko bizikidetzaren esperientzia bat ere. 35 urtera bitarteko gazteek alokatu ahal izateko laguntza-programa areagotzea, pixkanaka-pixkanaka, legegintzaldian zehar.

Etxebizitzaren eskuragarritasuna Nafarroako Gobernuarentzat erronka garrantzitsua da, eta helburua markatzen dio: Nafarroako kolektibo guztien bizitegi premiei erantzuten dieten eta etxebizitzaren eginkizun soziala betetzea bermatzen duten politikei ekitea.

Beraz, etxebizitzarako eskubidea bermatzearen helburua ez da mugatu behar errentamendu edo erosketa soiletara. Ikuspegi zabalago batetik, ekintzak bideratu behar dira jarduketa esparru egokiak planifikatzen, egituratzen eta sistematizatzen dituzten oinarriak ezartzera, Nafarroako Foru Komunitatean etxebizitza eskaintza nahikoa, egokia eta ordainerraza izan dezagun.

Duela gutxi, Nafarroako Gazteriaren Institutuak egindako Nafarroako Foru Komunitateko gazteen emantzipazioari buruzko inkestaren hirugarren edizioko datuak ezagutu ditugu. Hainbat gorabehera jorratzen dituzte, hala nola gazteen bizitegi-emantzipazioa eta haien etxebizitzen ezaugarriak, lan merkaturako sarrera, ikasketa maila eta egoera sozioekonomikoa, edo gazteen emantzipazioa errazteko laguntza publikoak zenbateraino ezagutzen diren eta zenbateraino eragiten duten.

Inkestako konklusioen arabera, etxebizitza erosi ordez alokairura jotzen duten gazteen kopurua handitu egin da Foru Komunitatean azken bi urteetan, eta bizimodu independentea duten gazte guztien % 58 dira dagoeneko bide hori aukeratu dutenak. Etxebizitzaren jabetza erostea gazte emantzipatuek gero eta gutxiago baloratzen duten aukera da. Izan ere, portzentaje hori % 29ra jaitsi da –% 10 gutxiago–, eta gainerakoak, % 12, lagatako etxebizitza batean bizi dira, senideen jabetzakoa, gehienetan.

Alokairua sustatzeko ildo horretara zuzenduta daude etxebizitzaren arloko Foru Komunitateko jarduketa publikoak.

Gazteei alokairurako laguntzak emateko EmanZipa programa hedatzen jarraitu da, eta 2019an ezarri zenetik hazten joan da 5.000 onuradun baino gehiago metatu arte. Gaur egun 2.546 onuradun ditu, iaz baino % 33 gehiago, eta urtean ia 5 milioi euroko zenbatekoa, guztira.

Nafarroako Gobernuak, gainera, konpromisoa agertu du hurrengo ekitaldietan pixkanaka igotzen joateko programa horretan parte hartzeko adin muga –orain 31 urtekoa da– harik eta 35 urtera

iritsi arte, legegintzaldi honetako gobernurako programa akordioan jaso zen bezala.

Halaber, alokairuaren arloko politikak bultzatzeko lanean jarraitzen du Nasuvinsa enpresa publikoak, eta hurrengo urteetan bikoiztu eginen du alokatzeko etxebizitza publikoen parkea. Sektore pribatuari ere pizgarriak ematen dizkio, alokatzeko etxebizitza babestuen sustapenerako eta eraikuntzarako laguntzak emanez.

Gainera, foru gobernuak hitzeman du gazteentzat gordeko dituela Navarra Social Housing alokairu planeko sustapen publiko berrietako etxebizitzen % 50, gutxienez ere –babes ofizialeko 500 etxebizitza baino gehiago eraiki dira edo eraikitzen ari dira, eta beste horrenbeste daude proiektaturik bigarren faserako– eta errenta maila jakin batzuk dituzten gazteentzako laguntzak aktibatuko dituela, landa eremuko etxebizitzak eros ditzaten.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 23an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

---

## Galdera, azken hogeita lau hilabeteetatik gutxienez seitan Nafarroatik kanpo bizi izan diren gazteen itzulerarako plana abian jartzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, azken hogeita lau hilabeteetatik gutxienez seitan Nafarroatik kanpo bizi izan diren gazteen itzulerarako plana abian jartzeari buruzkoa. Galdera 2022ko apirilaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak informazio-eskaera egin du (PES-00140), non honako informazio hau eskatzen baitzaio Nafarroako Gobernuari:

